# Actividad escolar y universitaria

## Análisis de resultados

# Eskola eta unibertsitate jarduerari buruzko estatistika

## Emaitzen analisia

Eustat

2002/2003

**Lanketa** / Elaboración:

**Eustat**
**Euskal Estatistika Erakundea**
Instituto Vasco de Estadística (Eustat)

**Argitaraldia /** Fecha:

X-2004

**Argitalpena** / Edición:

**Eustat**
**Euskal Estatistika Erakundea**
Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

**Internet:** www.eustat.es

© **Euskal AEko Administrazioa**
Administración de la C.A. de Euskadi

## INTRODUCCIÓN

El siguiente análisis sobre la Estadística de la Enseñanza tiene como principal objetivo suministrar información sobre la situación actual y la evolución del sistema de enseñanza Reglada en la C.A. de Euskadi, analizando tanto la enseñanza de Régimen General, preuniversitaria y universitaria, como las enseñanzas de Régimen Especial, y abarcando tanto el sector público como el privado.

La Estadística de la Enseñanza aporta una importante base de información que tiene una doble vertiente: por un lado, es un instrumento muy útil para el conocimiento del sistema educativo vasco, sirviendo con ello de soporte básico para la gestión y planificación de la administración educativa, y por otro lado, suministra la información estadística necesaria para ofertar a la sociedad las principales cifras que se manejan en el sistema educativo.

## CENTROS DE ENSEÑANZA

El sistema educativo reglado de la C. A. de Euskadi contó en el curso escolar 2002/2003 con un total de 1.042 centros de enseñanza, de los cuales 871 pertenecen a los niveles de educación Preuniversitaria, abarcando la enseñanza Básica y la Secundaria, y 56 son centros de enseñanza Universitaria. Además existen 115 centros dedicados a las enseñanzas de Régimen Especial, englobando Idiomas, Artes aplicadas y Oficios artísticos, Danza y Música.

## SARRERA

Irakaskuntzaren estatistikaren azterketa honen helburu nagusia da Euskal AEko hezkuntza-sistema arautuaren egungo egoerari eta bilakaerari buruzko informazioa eskaintzea. Araubide orokorreko irakaskuntzak aztertu dira -unibertsitate aurrekoak zein unibertsitatekoak-, bai eta araubide bereziko irakaskuntzak ere, eta sektore publikoa zein sektore pribatua sartu dira azterketan.

Irakaskuntzaren estatistikak ematen duen informazio-oinarri garrantzitsuak bi alderdi nagusi ditu: batetik, oso tresna baliagarria da Euskal AEko hezkuntza-sistema ezagutzeko, eta, horrenbestez, funtsezko laguntza da hezkuntzaren administrazioak egiten dituen kudeaketarako eta plangintzarako; beste aldetik, gizarteari hezkuntza-sisteman erabiltzen diren kopuru nagusiak eskaintzeko behar den estatistika-informazioa ematen du.

## IKASTETXEAK

Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistema arautuak 1.042 ikastegi zituen 2002-2003 ikasturtean. Ikastegi horietatik 871ek oinarrizko eta bigarren mailako irakaskuntzak ematen zituzten, eta 56 unibertsitate-ikastegiak ziren. Horiez gain, baziren araubide bereziko irakaskuntzak ematen zituzten 115 ikastegi (hizkuntzak, arte aplikatuak eta lanbideak, dantza eta musika).

## 1. TAULA: IKASTETXE-KOPURUA ETA EMATEN DITUZTEN IRAKASKUNTZA-MAILAK, LURRALDEKA 2002-2003 IKASTURTEA

TABLA 1. NÚMERO DE CENTROS Y NIVELES IMPARTIDOS POR TERRITORIO HISTÓRICO CURSO ACADÉMICO 2002/03

| | **Euskal AE** C.A. de Euskadi | **Araba** / Álava | **Bizkaia** | **Gipuzkoa** |
|---|---|---|---|---|
| **ARAUBIDE OROKORREKO IRAKASKUNTZA** | | | | |
| ENSEÑANZA RÉGIMEN GENERAL | 927 | 130 | 461 | 336 |
| **Unibertsitate aurreko irakaskuntza, araubide orokorra** | | | | |
| Régimen General Preuniversitario | 871 | 120 | 435 | 316 |
| **Oinarrizko Irakaskuntza** | | | | |
| Enseñanza Básica | 643 | 94 | 321 | 228 |
| **Haur Hezkuntza** | | | | |
| Educación Infantil | 566 | 87 | 282 | 197 |
| **Lehen Hezkuntza** | | | | |
| Educación Primaria | 539 | 79 | 273 | 187 |
| **Hezkuntza Berezia (Haur eta Lehen Hezkuntza)** | | | | |
| Educación Especial (Infantil-Primaria) | 34 | 7 | 19 | 8 |
| **Bigarren Mailako Irakaskuntza** | | | | |
| Enseñanza Secundaria | 445 | 53 | 223 | 169 |
| **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza** | | | | |
| Educación Secundaria Obligatoria | 343 | 43 | 178 | 122 |
| **Hezkuntza berezia (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza)** | | | | |
| Educación Especial (Secundaria Obligatoria) | 32 | 10 | 16 | 6 |
| **Lanbide Heziketa** | | | | |
| Formación Profesional | 192 | 23 | 91 | 78 |
| **Zereginen Ikaskuntza (Hezkuntza Berezia)** | | | | |
| Aprendizaje de tareas (Educación Especial) | 52 | 12 | 18 | 22 |
| **Batxilergoa** | | | | |
| Bachillerato | 217 | 27 | 112 | 78 |
| **Helduen Hezkuntza Iraunkorra** | | | | |
| Educación Permanente de Adultos | 47 | 4 | 25 | 18 |
| **Unibertsitateko irakaskuntza, araubide orokorra** | | | | |
| Régimen General Universitario | 56 | 10 | 26 | 20 |
| **Fakultateak** | | | | |
| Facultades | 24 | 2 | 12 | 10 |
| **Goi-mailako eskola teknikoak** | | | | |
| Escuelas Técnicas Superiores | 5 | 1 | 2 | 2 |
| **Unibertsitate-eskolak** | | | | |
| Escuelas Universitarias | 22 | 4 | 11 | 7 |
| **Beste batzuk** | | | | |
| Otros | 5 | 3 | 1 | 1 |
| **ARAUBIDE BEREZIKO IRAKASKUNTZA** | | | | |
| ENSEÑANZA RÉGIMEN ESPECIAL | 115 | 15 | 47 | 53 |
| **Arteak eta lanbideak** | | | | |
| Artes y Oficios | 6 | 1 | 3 | 2 |
| **Dantza** | | | | |
| Danza | 2 | 1 | 1 | – |
| **Hizkuntzak** | | | | |
| Idiomas | 8 | 1 | 4 | 3 |
| **Musika** | | | | |
| Música | 99 | 12 | 39 | 48 |

**Iturria** / Fuente: Eustat

La enseñanza de Régimen General de carácter preuniversitario ofrece, en la C.A. de Euskadi, Enseñanza Básica a través de una red de 643 centros, de los que 566 imparten Educación Infantil y 539 imparten Educación Primaria. Asimismo se cuenta con un total de 34 centros con unidades de Educación Especial Infantil-Primaria que operan bien como centros específicos de este tipo de enseñanza, bien con integración de los alumnos en los niveles ordinarios de enseñanza.

Por otro lado hay 445 centros de Educación Secundaria, entre los cuales 343 imparten Educación Obligatoria Secundaria (E.S.O.), 192 Formación Profesional tanto de grado medio como de grado superior (F.P.), y 217 incluyen en su oferta enseñanza de Bachillerato. Además

Oinarrizko irakaskuntzako eskaintzak 643 ikastetxeko sarea hartzen du; ikastetxe horietatik 566k Haur Hezkuntza ematen dute, eta 539k, Lehen Hezkuntza. Halaber, Haur eta Lehen Hezkuntzan hezkuntza bereziko unitateak dituzten 34 ikastetxe daude. Batzuk hezkuntza horretarako berariazko ikastegiak dira, eta beste batzuetan hezkuntza bereziko ikasleak hezkuntzako maila arruntetan integraturik daude.

Bestalde, Bigarren Mailako Irakaskuntzako 445 ikastetxe daude. Haietarik, 343k Derrigorrezko Bigarren Hizkuntza (DBH) ematen dute; 192k, Lanbide Heziketa -erdi-mailakoa zein goi-mailakoa-, eta 217k Batxilergoa ere ematen dute. Horiez gain, badira Hezkuntza Bereziko unitateak

existen también centros con unidades de Educación Especial Secundaria, tanto de nivel E.S.O. (32), como de Aprendizaje de tareas (52).

Por último, se cuenta con 47 centros de Educación Permanente de Adultos que imparten distintos niveles de enseñanza básica y secundaria.

Dentro de la enseñanza de carácter universitario, las 11 universidades existentes en la C.A. de Euskadi impartieron estudios superiores a través de 56 centros que se repartieron en: 5 Escuelas Técnicas Superiores, 24 Facultades, 22 Escuelas Universitarias y 5 centros de estudios asimilados a la Enseñanza Universitaria.

Por último, en cuanto a los 115 centros dedicados a enseñanzas de Régimen Especial, la gran mayoría, 99, son centros que se dedican a la impartición de Música, que comprenden desde Escuelas de Música hasta Conservatorios Superiores. Además existen 8 Escuelas Oficiales de Idiomas, 6 Centros de Artes aplicadas y Oficios artísticos y, finalmente, 2 centros que imparten Danza.

Desde que comenzó a implantarse la LOGSE en 1990, han ido desapareciendo centros de enseñanza de forma paulatina, hasta el punto que en la última década, desde el curso 1993/94, un total de 171 centros han cerrado sus puertas en la C.A. de Euskadi. Este descenso viene causado fundamentalmente por el cierre de 203 centros de enseñanza de nivel Preuniversitario, aunque es parcialmente compensado por la apertura de 4 centros en el nivel Universitario y 28 en Enseñanzas de Régimen Especial.

dituzten ikastetxeak Bigarren Hezkuntzan, eta bai DBH (32) bai Zereginen ikaskuntza (52) ematen dituzte.

Azkenik, badira Helduen Hezkuntza Iraunkorreko 47 ikastegi, eta Oinarrizko Irakaskuntzako zein Bigarren Mailako Irakaskuntzako hainbat maila ematen dute.

Unibertsitateko irakaskuntzari dagokionez, Euskal AEn dauden 11 unibertsitateek goi-mailako ikasketak eman zituzten 56 ikastetxetan. Honela daude banatuta ikastetxe horiek: 5 goi-mailako eskola tekniko, 24 fakultate, 22 unibertsitate-eskola, eta unibertsitateko hezkuntzari berdinetsitako 5 ikastegi.

Azkenik, araubide bereziko ikastegiei dagokienez -115 guztira-, gehienek (99) musika irakasten dihardute, musika-eskoletatik goi-mailako kontserbatorioetara bitarte. Badira, gainera, 8 hizkuntza-eskola ofizial, 6 arte- eta lanbide-zentro, eta dantza irakasten duten 2 ikastetxe.

1990. urtean LOGSE ezartzen hasi zenez geroztik, hainbat ikastetxe desagertuz joan da pixkanaka. Hala, azken hamarkadan, 1993-1994 ikasturteaz geroztik, guztira 171 ikastetxe itxi dira Euskal AEn. Ikastetxe-kopurua jaitsi da unibertsitate aurreko ikasketetako 203 ikastetxe itxi direlako, batik bat. Hala ere, murrizte hori neurri batean konpentsatu da, unibertsitate-hezkuntzako 4 ikastegi eta araubide bereziko irakaskuntzetako 28 ikastetxe ireki baitira.

Evolución del número de centros según niveles de enseñanza — Gráfico 1 Grafikoa — **Ikastetxe-kopuruaren bilakaera, hezkuntza-mailen arabera**




**Iturria** / Fuente: Eustat

Si atendemos a la titularidad de los centros y dentro del nivel de enseñanza preuniversitaria, 538 centros eran de titularidad pública (61,7%) y los 333 restantes (38,2%) de carácter privado. Los centros de enseñanza universitaria, por su parte, se reparten en 2002/03 entre 35 de titularidad pública (62,5%) y 21 corresponden a titularidad privada (37,5%). En cuanto a las ramas de enseñanzas Especializadas, se cuenta con 56 centros públicos frente a 59 privados.

Unibertsitate aurreko irakaskuntzan, ikastetxeen titulartasunari begiratuta, 538k titulartasun publikoa zuten (%61,7), eta gainerako 333k, titulartasun pribatua (%38,2). Unibertsitate-irakaskuntzako ikastegiei dagokienez, 2002-2003 ikasturtean, 35ek titulartasun publikoa zuten (%62,5), eta 21ek, titulartasun pribatua (%37,5). Hezkuntza bereziaren kasuan, badira 56 ikastetxe publiko eta 59 ikastetxe pribatu.

Número de centros por nivel de enseñanza según titularidad. 2002/03 — Gráfico **2 Grafikoa** — **Ikastetxe-kopurua, hezkuntza-mailaren eta titulartasunaren arabera 2002-2003**




**Iturria** / Fuente: Eustat

## PERSONAL

La red de centros de enseñanza de la C.A. de Euskadi contó en 2002/03 con un total de 48.294 personas entre docentes y no docentes, lo que supone un 5,4% sobre el total de la población ocupada en 2003 y un 9% de los ocupados en el sector servicios.

El cuerpo docente, con 35.432 personas, de las cuales un 64% son mujeres, representó el 73,4% del personal total y el no docente, con 12.862 personas, el restante 26,6%. Atendiendo a la titularidad del centro de trabajo al que se pertenece, el 62,8% de los docentes trabajó en centros públicos y el 37,2% lo hizo en centros privados.

Dentro de las enseñanzas de Régimen General, el personal docente ascendió en 2002/03 a un total de 34.487 personas, de las cuales 13.064 impartieron Educación Infantil-Primaria, siendo el profesorado en este caso mayoritariamente mujeres (84,5%), otros 15.148 profesores impartieron Educación Secundaria y finalmente 5.123 ocuparon plazas en enseñanza Universitaria.

## LANGILEAK

Euskal AEko ikastetxeen sareak, 2002-2003 ikasturtean, guztira 48.294 langile bildu zituen, irakasleak eta ez-irakasleak kontuan izanik. Biztanleria landunaren %5,4 izan ziren 2003an, eta zerbitzu-sektorean lana zutenen %9.

35.432 pertsonek osatzen dute irakasleen kidegoa (haietarik %64 emakumezkoak dira), eta langile guztien %73,4 dira. Pertsonal ez-irakasleak (12.862 lagun) gainerako %26,6 osatzen du. Lantokiaren titulartasunari begira, irakasleen %62,8k ikastetxe publikoetan lan egin zuten, eta %37,2k ikastegi pribatuetan lan egin zuten.

Araubide orokorreko irakaskuntzetan, irakasleak 34.487 izan ziren guztira 2002-2003 ikasturtean. Haietarik, 13.064k Haur eta Lehen Hezkuntzak eman zituzten, eta, kasu horretan, gehienak emakumezkoak izan ziren (%84,5); 15.148 irakaslek Bigarren Hezkuntza eman zuten, eta, azkenik, 5.123k Unibertsitate Hezkuntzako postuetan izan ziren.

Enseñanza de Régimen General. Evolución del personal docente por niveles | Gráfico **3 Grafikoa** | **Araubide orokorreko irakaskuntza. Irakasle-kopuruaren bilakaera, irakaskuntza-mailaren arabera**




**Iturria** / Fuente: Eustat

Si se compara estas cifras con las habidas hace una década, se observa un aumento en la cifra de personal docente del 11,9%, siendo del 10,6% en los niveles Preuniversitarios y alcanzando un 19,8% en la educación Universitaria.

Kopuru horiek eta duela hamar urte zeudenak alderatzen baditugu, irakasle-kopurua %11, 9 gehitu dela ikusiko dugu. Unibertsitate aurreko ikasmailetan %10,6 igo da kopuru hori, eta unibertsitatean, %19,8.

Enseñanzas de Régimen General. Evolución del personal docente por titularidad | Gráfico **4 Grafikoa** | **Araubide orokorreko irakaskuntza. Irakasle-kopuruaren bilakaera, titulartasunaren arabera**




**Iturria** / Fuente: Eustat

Eustat

La plantilla de personal docente en los niveles preuniversitarios fue de 29.364 personas, distribuidas entre los centros públicos, que contaron con el 60,4% del personal docente, y los privados, que ocuparon al 39,6% restante. El porcentaje de mujeres docentes en niveles preuniversitarios alcanzó en 2002/03 el 69,3%. Atendiendo a su titulación, un 42,5% posee un título de licenciado y un 51,5% son diplomados. El 34,7% de este personal tiene una edad inferior a 40 años, el 43,2% está entre los 40 y 50 años, mientras que los mayores de 50 representan el 22,1%.

Asimismo, un total de 28.200 docentes (96%) trabajan a jornada completa, mientras que únicamente el 4% lo hace a tiempo parcial. Los tipos de contratación más extendidos entre el personal docente son: funcionarios de carrera (12.205), contratados laborales fijos (9.758 ) e interinos (4.988).

En la enseñanza de estudios universitarios el número de docentes alcanzó en 2002/03 la cifra de 5.123, siendo éste el nivel de estudios donde el porcentaje de mujeres es menor (35,3%). Además, el 77,2% de los docentes pertenece a centros públicos y el 22,8% a centros privados. A su vez, un 68,1% trabaja a jornada completa, mientras que el porcentaje de personal a tiempo parcial alcanza el 31,9%. Por tipos de contratación, la modalidad más extendida entre el personal docente universitario es el funcionario de carrera (UPV) con 2.098 docentes que suponen el 39,3% del total.

En cuanto a las enseñanzas de Régimen Especial, la plantilla de docentes es de 945 personas, repartidas entre Música con 619, Idiomas con 248, Artes y Oficios con 69 y Danza con 9 profesores.

## ALUMNADO

En el curso 2002/2003 la población escolarizada en el conjunto del sistema de enseñanza reglada de la C.A. de Euskadi alcanzó la cifra de 426.530 alumnos. De estos, 395.486 cursaron enseñanzas de Régimen General, lo que representa un 19,2% de la población total y un 76,9% de la población menor de 25 años. Además, 31.044 alumnos cursaron algún tipo de enseñanza de Régimen Especial, mayoritariamente Idiomas (88,5%).

Dentro de las enseñanzas de Régimen General preuniversitaria, el bloque de alumnos de Educación Básica (161.523) fue el más numeroso en 2002/03 con un 40,8% del total de alumnado de la C.A. de Euskadi, repartiéndose éste entre Educación Infantil (39,6%) y Primaria (60,4%). Los alumnos de Enseñanza Secundaria (139.002) supusieron el 35,1% del total, y entre ellos un 53,5% cursaron E.S.O., un 24,8% Bachillerato y el 21,7% optó por la Formación Profesional.

Unibertsitate aurreko ikasmailetan, irakasle ziren 29.364 langile zeuden. Irakasle haietarik, ikastetxe publikoetan %60,4 zeuden, eta gainerako %39,6k ikastetxe pribatuetan lan egin zuten. Unibertsitate aurreko ikasmailetan irakasten zuten emakumezkoen ehunekoa %69,3 izan zen 2002-2003 ikasturtean. Tituluei begiratuta, %42,5 lizentziadunak ziren, eta %51,5ek diploma zuten. Langile horietako %34,7k 40 urte baino gutxiago zituzten, %43,2k 40 eta 50 urte bitarteko adina zuten, eta 50 urte baino gehiagokoak %22,1 ziren.

Halaber, 28.200 irakaslek (%96) lanaldi osoan lan egiten dute, eta, aldiz, %4k baino ez dute lanaldi laburra. Honako hauek dira irakasleek izaten dituzten kontratu-mota ohikoenak: karrerako funtzionarioak (12.205), lan-kontratu finkokoak (9.758), eta bitarteko irakasleak (4.988).

Unibertsitateko ikasketen irakaskuntzan, 2002-2003 ikasturtean irakasle-kopurua 5.123koa izan zen. Ikasmaila horietan zegoen, hain zuzen, emakumezkoen ehuneko txikiena (%35,3). Bestalde, irakasleen %77,2 ikastetxe publikokoak ziren, eta %22,8, ikastetxe pribatuetakoak. Era berean, %68,1ek lanaldi osoan lan egiten zuten, eta lanaldi laburra zuten irakasleak, ordea, %31,9 ziren. Kontratu-motari begiratuta, unibertsitate-irakaskuntzako irakasleen artean karrerako funtzionarioa (EHU) zen modalitaterik zabalduena, 2.098 irakasle halakoak baitziren, %39,3 alegia.

Araubide bereziko irakaskuntzei dagokienez, irakasle-kopurua 945ekoa zen: 619 musikan, 248 hizkuntzetan, 69 arte eta lanbideetan, eta 9 dantzan.

## IKASLEAK

2002-2003 ikasturtean, Euskal AEko irakaskuntza arautuaren sistema osoan eskolaturik zeuden ikasleak 426.530 ziren guztira. Haietarik, 395.486k araubide orokorreko ikasketak egin zituzten; kopuru hori biztanle guztien %19,2 zen, eta 25 urte baino gutxiagoko biztanleen %76,9. Horrez gain, 31.044 ikaslek araubide bereziko ikasketaren bat egin zuten, hizkuntzako ikasketak, gehienbat (%88,5).

Araubide orokorreko unibertsitate aurreko irakaskuntzetan, Oinarrizko Irakaskuntzako ikasle-multzoa izan zen handiena (161.523) 2002-2003 ikasturtean, Euskal AEko ikasle guztien %40,8, alegia; haietarik, %39,6 Haur Hezkuntzan egon ziren, eta % 60,4, Lehen Hezkuntzan. Bigarren Mailako Irakaskuntzako ikasleak (139.002) ikasle guztien %35,1 izan ziren: %53,5ek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) egin zuten; %24,8k, Batxilergoa; eta %21,7k Lanbide Heziketa aukeratu zuten.

## 2. TAULA: IKASLE-KOPURUA, HEZKUNTZA-MAILAREN ARABERA
TABLA 2. NÚMERO DE ALUMNOS POR NIVEL DE ENSEÑANZA

| | 2002/03 | 2001/02 | Δ% |
|---|---|---|---|
| **IKASLEAK, GUZTIRA**<br>TOTAL ALUMNADO | 426.530 | 427.061 | -0,1 |
| **ARAUBIDE OROKORREKO IRAKASKUNTZAK**<br>ENSEÑANZAS DE RÉGIMEN GENERAL | 395.486 | 397.540 | -0,5 |
| **Unibertsitate aurreko irakaskuntza**<br>Educación preuniversitaria | 318.897 | 319.206 | -0,1 |
| **Oinarrizko irakaskuntza**<br>Educación básica | 161.523 | 158.242 | 2,1 |
| **Haur Hezkuntza**<br>Educación infantil | 63.980 | 60.996 | 4,9 |
| **Hezkuntza berezia (Haur Hezkuntza)**<br>Educación especial (infantil) | 63 | 51 | 23,5 |
| **Lehen Hezkuntza**<br>Educación primaria | 97.139 | 96.827 | 0,3 |
| **Hezkuntza berezia (Lehen Hezkuntza)**<br>Educación especial (primaria) | 341 | 368 | -7,3 |
| **Bigarren mailako irakaskuntza**<br>Educación secundaria | 139.002 | 144.421 | -3,8 |
| **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza**<br>Educación secundaria obligatoria | 74.147 | 77.634 | -4,5 |
| **Hezkuntza berezia (DBH)**<br>Educación especial (E.S.O.) | 172 | 162 | 6,2 |
| **Batxilergoa**<br>Bachillerato | 34.469 | 36.699 | -6,1 |
| **Erdi-mailako Lanbide Heziketa**<br>Formación Profesional grado medio | 11.203 | 11.023 | 1,6 |
| **Goi-mailako Lanbide Heziketa**<br>Formación Profesional grado superior | 18.626 | 18.496 | 0,7 |
| **Zereginen Ikaskuntza**<br>Aprendizaje de Tareas | 385 | 407 | -5,4 |
| **Helduen Hezkuntza Iraunkorra**<br>Educación permanente de adultos | 18.372 | 16.543 | 11,1 |
| **Unibertsitate-ikasketak**<br>Estudios universitarios | 76.589 | 78.334 | -2,2 |
| **1. zikloko unibertsitate-ikasketak**<br>Estudios universitarios de 1er ciclo | 27.477 | 27.416 | 0,2 |
| **Bi zikloko unibertsitate-ikasketak**<br>Estudios universitarios de 2 ciclos | 43.123 | 45.403 | -5,0 |
| **2. zikloko unibertsitate-ikasketak**<br>Estudios universitarios de 2º ciclo | 3.597 | 3.285 | 9,5 |
| **3. zikloko unibertsitate-ikasketak**<br>Estudios universitarios de 3er ciclo | 2.392 | 2.230 | 7,3 |
| **ARAUBIDE BEREZIKO IRAKASKUNTZAK**<br>ENSEÑANZAS DE RÉGIMEN ESPECIAL | 31.044 | 29.521 | 5,2 |
| **Arteak eta lanbideak**<br>Artes y oficios | 668 | 663 | 0,8 |
| **Hizkuntzak**<br>Idiomas | 27.469 | 25.726 | 6,8 |
| **Musika**<br>Música | 2.850 | 3.076 | -7,3 |
| **Dantza**<br>Danza | 57 | 56 | 1,8 |

**Iturria** / Fuente: Eustat

Es destacable el crecimiento en el número de alumnos de origen extranjero que se viene produciendo en las aulas de los centros de enseñanza de la C.A. de Euskadi como consecuencia del creciente fenómeno de la inmigración. Así, en 2002/03, 20 de cada 1.000 alumnos de Educación Infantil eran de origen extranjero, en Educación Primaria esta cifra ascendía a 25,7 de cada 1.000 matriculados y en la E.S.O. a 21,7 por 1.000. En los niveles de enseñanza post-obligatorios su valor es poco significativo. Atendiendo a la titularidad del centro, el 67,7% de estos alumnos estudia en centros públicos.

Nabarmendu behar da, Euskal AEko ikastetxeetako geletan gero eta gehiago direla atzerriko jatorria duten ikasleak, gorantz doan immigrazioaren ondorioz. Hala, 2002-2003 ikasturtean, Haur Hezkuntzako 1.000 ikasletik 20k atzerriko jatorria zuten; Lehen Hezkuntzan kopurua handiagoa izan zen, 1.000 ikasle matrikulatutik 25,7; eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, 1.000 ikasletik 21,7. Derrigorrezko hezkuntzaren ondorengo mailetan kopuru hori ez da esanguratsua. Ikastegiaren titulartasunari begiratuta, ikasle horien %67,7k ikastetxe publikoetan ikasten zuten.

Por otro lado, 18.626 alumnos asistieron a cursos de Educación Permanente de Adultos, tanto en niveles correspondientes a educación Primaria como a Secundaria. Este nivel educativo es el que ha experimentado un mayor crecimiento respecto al año anterior con un porcentaje de incremento del 11,1%. De igual forma, el porcentaje de alumnado extranjero es también notable en este nivel, donde los 1.770 alumnos de origen extranjero suponen ya un 9,5% del total.

En lo que se refiere a estudios universitarios, el alumnado alcanzó en 2002/03 la cifra de 76.589 estudiantes, de los cuales el 56% cursó carreras de dos ciclos con titulación de licenciado, ingeniero o arquitecto, otro 36% optó por programas de diplomatura o ingeniería técnica, es decir, de 1er ciclo, el 5% prefirió una carrera de 2º ciclo y el 3% restante cursó estudios de doctorado (3er ciclo).

Por su parte, las enseñanzas de régimen especial, durante el curso 2002/03, registraron una matrícula oficial de 31.044 alumnos, divididos entre Idiomas (27.469), Música (2.850), Danza (57) y Artes aplicadas y Oficios artísticos (668).

Bestalde, 18.626 ikasle izan ziren Helduen Hezkuntza Iraunkorrean, bai Oinarrizko zein Bigarren Mailako Irakaskuntzari dagozkien mailetan. Hezkuntza-maila horrexek izan zuen, hain zuzen, hazkunderik handiena aurreko ikasturtearen aldean, %11,1 hazi baitzen. Halaber, maila horretan ere ikasle atzerritarren ehunekoa nabaria da, eta atzerriko jatorria duten 1.770 ikasleak guztizkoaren %9,5 dira jadanik.

Unibertsitate-ikasketei dagokienez, 2002-2003 ikasturtean 76.589 ikasle izan ziren. Ikasle haietarik, %56k bi zikloko unibertsitate-ikasketak egin zituzten (lizentziadunak, ingeniariak edo arkitektoak); %36k diplomaturako edo ingeniaritza teknikoko ikasketa-programak hautatu zituzten (1. ziklokoak); %5ek 2. zikloko ikasketak aukeratu zituzten, eta gainerako %3k doktoretza egin zuten (3. zikloa).

Araubide bereziko irakaskuntzetan, bestalde, 2002-2003 ikasturtean matrikula ofiziala 31.044 ikaslekoa izan zen: 27.469 hizkuntzetan; 2.850 musikan; 57 dantzan; eta 668 arte eta lanbideetan.

**3. TAULA: ATZERRIKO IKASLEEN KOPURUA, MATRIKULATURIKO 1.000 IKASLEKO (HAUR HEZKUNTZA, LEHEN HEZKUNTZA ETA DBH), AUTONOMIA-ERKIDEGOKA 2000/01**
TABLA 3. NÚMERO DE ALUMNOS EXTRANJEROS POR 1.000 MATRICULADOS EN EDUCACIÓN INFANTIL, PRIMARIA Y E.S.O., POR CC.AA.. 2000/01

| | **Haur-Hezkuntza** Infantil | **Lehen Hezkuntza** Primaria | **DBH** E.S.O. |
|---|---|---|---|
| **Euskal AE (2002/03)** / C.A. de Euskadi (2002/03) (*) | 19,7 | 25,7 | 21,7 |
| **Euskal AE (2000/01) /** C.A. de Euskadi (2000/01) (*) | 8,8 | 13,2 | 10,3 |
| **Estatua** / Estado | 21,1 | 23,8 | 19,7 |
| **Andaluzia** / Andalucia | 19,2 | 20,1 | 14,5 |
| **Asturiasko Printzerria** / Asturias (Principado de) | 7,2 | 9,2 | 6,5 |
| **Balear Uharteak** / Balears (Illes) | 44,3 | 49,6 | 38,1 |
| **Kanariak** / Canarias | 24,6 | 35,9 | 32,5 |
| **Kantabria** / Cantabria | 6,8 | 10,4 | 9,1 |
| **Gaztela eta Leon** / Castilla y León | 10,6 | 13,1 | 10,6 |
| **Gaztela-Mantxa** / Castilla - La Mancha | 13,6 | 13,8 | 9,5 |
| **Katalunia** / Cataluña | 22,2 | 27,7 | 31,8 |
| **Valentziako Erkidegoa** / Comunidad Valenciana | 21,6 | 26,3 | 21,4 |
| **Extremadura** / Extremadura | 7,0 | 8,2 | 7,0 |
| **Galizia** / Galicia | 4,4 | 7,2 | 6,9 |
| **Madrilgo Autonomia Erkidegoa** / Madrid (Comunidad de) | 51,3 | 56,5 | 40,4 |
| **Murtziako Eskualdea** / Murcia (Región de) | 21,2 | 22,6 | 18,9 |
| **Nafarroako Foru Erkidegoa** / Navarra (Comunidad Foral de) | 27,0 | 29,4 | 20,5 |
| **Errioxa** / La Rioja | 22,4 | 29,5 | 17,2 |
| **Ceuta** / Ceuta | 3,3 | 4,4 | 3,1 |
| **Melilla** / Melilla | 31,2 | 41,6 | 26,1 |

**(*) Iturria /** Fuente: Eustat
**Iturria /** Fuente: INE (2000/2001)

Evolución de la cifra de alumnos por nivel de enseñanza

Gráfico **5** **Grafikoa**

**Ikasle-kopuruaren bilakaera, irakaskuntza-mailaren arabera**




**Iturria** / Fuente: Eustat

En cuanto a la evolución del número de alumnos respecto al curso anterior, hay que destacar que las enseñanzas de Régimen General reflejaron un ligero descenso de 2.054 alumnos (-0,5%) que, sin embargo, no es representativo del comportamiento de los distintos niveles que comprende. Así, al observar las cifras desagregadas por niveles, la Educación Básica muestra un incremento en el número de alumnos del 2,1%, mientras Educación Secundaria y los Estudios Universitarios reflejan descensos del 3,8% y 2,2%, respectivamente. Cabe destacar también el notable incremento porcentual de la Educación Permanente de Adultos, que creció respecto a 2001/02 un 11,1% y se consolida alcanzando la cifra de 18.372 alumnos.

En lo que a las enseñanzas de Régimen Especial se refiere, cabe resaltar que respecto a 2001/02 se experimentó un incremento del 5,2%, con 1.523 alumnos nuevos, destacando el aumento en matriculaciones de Idiomas (6,8%) y en sentido opuesto, la disminución en estudios de Música (-7,3%) como variaciones más importantes.

Además, al ampliar el horizonte temporal a la última década, se puede observar cómo el curso 2002/03 ha servido para afianzar el patrón de comportamiento de las cifras de alumnado que se vienen observando a partir de los cursos 1997/98 y 1998/99, en los que la implantación de la L.O.G.S.E. en la Educación Secundaria supuso un cambio brusco de la serie. Desde ese momento, se reitera una disminución en la cifra global de alumnos de Secundaria (-17,8%) y de nivel Universitario (-14,7%) y una recuperación lenta pero continua de la cifra correspondiente a Educación Infantil-Primaria (+6,5%).

Aurreko urtearen aldean izan den ikasle-kopuruaren bilakaerari dagokionez, azpimarratu behar da araubide orokorreko irakaskuntzek 2.054 ikasleko murrizketa txiki bat izan zutela (%-0,5). Hala ere, murrizketa horrek ez du adierazten irakaskuntza horietako maila bakoitzean gertatzen dena. Hala, bada, kopuruei mailaka begiraturik, Oinarrizko Irakaskuntzetan ikasle-kopurua %2,1 hazi zen, eta Bigarren Mailako Irakaskuntzako eta Unibertsitate-ikasketetako ikasle-kopuruak, aldiz, murriztu egin ziren, %3,8 eta %2,2, hurrenez hurren. Nabarmendu behar da Helduen Hezkuntza Iraunkorrean hazkunde handia izan zela ehunekotan, %11,1 hazi baitzen 2000-2001 ikasturtearen aldean; hezkuntza hori sendotu egin da, 18.372 ikaslerekin.

Araubide bereziko irakaskuntzei dagokienez, azpimarratu behar da %5,2ko hazkundea izan zela 2001-2002 ikasturtearen aldean (1.523 ikasle gehiago). Aldaketa garrantzitsuenak aipatzearren, hizkuntza-ikasketetako matrikulazioen hazkundea (%6,8) nabarmendu zen, eta musikako ikasketak, aitzitik, murrizketagatik nabarmendu ziren (%-7,3).

Gainera, denboraren ikuspegia azken hamarkadara zabaltzen badugu, ikus daiteke 2002-2003 ikasturtean sendotu egin dela 1997-1998 eta 1998-1999 ikasturteez geroztik atzematen den ikasle-kopuruen patroia. Ikasturte horietan, hain zuzen, Bigarren Mailako Irakaskuntzan LOGSE ezartzean, aldaketa handia gertatu zen seriean. Une horretatik aurrera, Bigarren Hezkuntzako ikasleen kopuru orokorra (%-17,8) nahiz Unibertsitateko ikasleena (%-14,7) jaitsi egin zen berriz ere. Era berean, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleen kopurua berreskuratu egin da (%+6,5), poliki baina etengabe.

Evolución de la cifra de alumnos por nivel de enseñanza. Número Indice con base 1993/94

Gráfico 6 **Grafikoa**

**Ikasle-kopuruaren bilakaera, irakaskuntza-mailaren arabera. Zenbaki indizea, 1993-1994 ikasturtean oinarrituta**




**Iturria** / Fuente: Eustat

Si atendemos a la titularidad del centro y focalizando en las enseñanzas de Régimen General, durante el curso 2002/03 los centros públicos escolarizaron el 55,2% del alumnado de la C.A. de Euskadi, con 218.225 alumnos, mientras que los restantes 177.261 alumnos (44,8%) cursaron sus estudios en centros privados, cifras que van en la línea de lo observado durante los últimos diez años. Además, estos porcentajes tienden a igualarse con un 50,3% y un 49,7%, respectivamente, cuando se excluyen las cifras de alumnos universitarios, para los que las diferencias son mayores con un 75,7% en la universidad pública y un 24,3% en la privada.

Ikastetxearen titulartasunari begiratuta, eta araubide orokorreko ikasketetan arreta jarrita, Euskal AEko ikasleen %55,2 (218.225 ikasle) ikastetxe publikoetan eskolatu zituzten 2002/03 ikasturtean. Gainerako 177.261 ikasleek (%44,8) ikastetxe pribatuetan ikasi zuten. Kopuru horiek azken hamar urteotako kopuruen bilakaerarekin bat datoz. Gainera, ehuneko horiek berdintzeko joera dago (hurrenez hurren %50,3 eta %49,7 bihurtzen dira) unibertsitateko ikasleak kanpo uzten direnean. Unibertsitateko ikasketei dagokienez, aldea handiagoa da. Ikasleen %75,7k unibertsitate publikoan ikasten dute eta %24,3k pribatuan.

Evolución en la cifra total de alumnos según la titularidad del centro

Gráfico 7 **Grafikoa**

**Ikasle-kopuruaren bilakaera, ikastetxearen titulartasunaren arabera**




**Iturria** / Fuente: Eustat

Distribución del alumnado de enseñanzas de Régimen General por edad
Comparación 1993/94 - 2002/03

Gráfico **8** **Grafikoa**

**Araubide orokorreko ikasleen banaketa, adinaren arabera. 1993-1994 eta 2002-2003 ikasturteen arteko aldea**




**Iturria** / Fuente: Eustat

Al comparar la distribución del alumnado por edades existente en 2002/03 con la observada hace una década, el perfil muestra dos situaciones bastante diferenciadas. Así, si se observa el segmento de edad entre 5 y 22 años, se puede apreciar claramente un descenso de la cifra global de alumnado que asciende a 126.393 alumnos; sin embargo, al tomar otros rangos de edad como los alumnos de educación Infantil o los alumnos de mayor edad,

2002-2003 ikasturtean izan den ikasleen adina duela hamar urteko ikasleen adinarekin alderatuta, bi egoera oso ezberdin ikusten dira. 5 eta 22 urte bitarteko adin-tartean, oro har ikasleen kopurua murriztu dela atzematen da. 126.393 ikasle daude tarte horretan. Aldiz, beste adin--tarte batzuk hartzen baditugu, hala nola haur hezkuntzako ikasleena edota helduagoak direnena, aurkakoa gertatzen da. Azken hamar urteotako ikasle-kopuruak gora

Tasas de escolaridad por edad.
Comparación 1993/94 - 2002/03

Gráfico **9** **Grafikoa**

**Eskolatze-tasak, adinari jarraiki. 1993-1994 eta 2002-2003 ikasturteen arteko aldea**




**Iturria** / Fuente: Eustat

**Oharra: Ez dira ikasketa espezializatuko ikasleak sartu, eskolatutakoen kopuruetan bikoiztasunik izan ez dadin. Balio batzuek % 100 gainditzen dute, Euskal AE kanpotik datozen ikasleak kontuan hartzen baitituzte.**

Nota: No se incluyen los alumnos de enseñanzas especializadas, con el fin de evitar duplicidades en el número de escolarizados. Algunos valores superan el 100% al incluir el alumnado que procede de fuera de la C.A. de Euskadi.

el comportamiento es el contrario, con un aumento en las cifras de alumnos durante los últimos diez años de 12.133 para los alumnos menores de 4 años y de 4.600 para los mayores de 22 años de edad. El saldo neto de estos movimientos se traduce en una disminución del 20,7% del alumnado en los últimos diez años.

**Ratios**

La tasa de escolaridad para la C.A. de Euskadi alcanzó en 2002/03 el valor de 19,2%. Esto implica que en los últimos diez años el porcentaje de población escolarizada sobre el total de población de la C.A. de Euskadi ha caído 4,7 puntos, pasando del 23,9% en 1994 al 19,2% en 2003.

Por grupos de edad, se observa en estos años un aumento de las tasas de escolaridad en los grupos de 0 a 6 años y en los mayores de 18 años, es decir la población no sujeta a educación obligatoria. Así por ejemplo, en el curso 1993/94 la escolarización de menores de 2 años era prácticamente nula mientras en 2002/03 alcanza valores del 3,9% y 10,1% para 0 y 1 años, respectivamente, e igualmente para los alumnos entre 2 y 5 años se ha pasado de una tasa bruta de escolarización del 81,2% en 1993/94 al 98,8% en el curso 2002/03. De la misma forma, a partir de los 18 años las tasas actuales superan en algunos casos incluso en más de 13 puntos a las tasas de hace diez años.

Sin embargo, entre los 6 y 18 años las tasas se mantienen muy similares a las de hace una década, si bien debe tenerse en cuenta que hablamos de un grupo de edad en el que las tasas ya alcanzaban, e incluso superaban, el 100% hace una década y ahora se mueven, con pequeñas variaciones, en los mismos parámetros.

Por otro lado, al realizar una comparación con los países de la OCDE, la C.A. de Euskadi se ha situado en el grupo de países con tasas de escolaridad más altas, ostentando incluso, para el grupo de 0 a 4 años, la tasa de escolaridad más elevada con más de 20 puntos de diferencia sobre sus inmediatos seguidores Bélgica y Francia. Para el resto de grupos de edad las tasas fueron también superiores a la mayoría de los países de la OCDE, salvo el grupo de 20 a 29 años para el cual los países del centro y norte de Europa como Alemania, Holanda, Bélgica, Dinamarca, Finlandia y Suecia, además de Grecia, presentan tasas superiores.

egin du. 4 urtetik beherako 12.133 ikasle daude, eta 22 urtetik gorako 4.600. Mugimendu horien emaitza garbia hauxe da: azken hamar urteetan ikasleen kopurua %20,7 jaitsi da.

**Ratioak**

Euskal AEko eskolatze-tasa %19,2koa izan zen 2002-2003 ikasturtean. Ehuneko horrek adierazten duenez, Euskal AEko biztanle guztien aldean eskolatutako biztanleriaren ehunekoa 4,7 puntutan jaitsi da azken hamar urteotan. 1994. urtean %23,9koa zen, eta 2003. urtean, ordea, %19,2koa.

Adin-taldeen arabera, eskolatze-tasak gora egin zuen 0 eta 6 urte bitarteko taldeetan eta 18 urtetik gorakoetan. Beraz, derrigorrezko hezkuntzatik kanpo dauden biztanleen artean. Esate baterako, 1993-1994 ikasturtean ia ez zegoen 2 urtetik beherako haurrik eskolaturik. Aldiz, 2002-2003 ikasturtean, 0 eta 1 urte bitarteko haurren %3,9 eta %10,1 eskolatu zituzten hurrenez hurren. Era berean, 2 eta 5 urte bitarteko ikasleen eskolatze-tasa gordinak gora egin du: 1993-1994 ikasturtean %81,2koa izatetik 2002-2003 ikasturtean %98,8koa izatera pasa zen. 18 urtetik gorako egungo tasetan ere gauza bera gertatzen da. Zenbaitetan, egungo tasa duela hamar urtekoa baino 13 puntu handiagoa izatera iristen da.

Hala ere, 6 eta 18 urte bitarte, egungo tasak eta duela hamar urtekoak oso antzekoak dira. Kontuan izan behar dugu adin-talde horretan tasa horiek %100ekoak edo handiagoak izatera iristen zirela jada duela hamar urte. Egun, antzeko parametroetan dabiltza, aldaketa txikiak izaten diren arren.

Bestalde, ELGEko herrialdeekin alderatuta, Euskal AE eskolatze-tasa handienak dituzten herrialdeen taldean sartu da. Izan ere, 0 eta 4 urte bitarteko taldean, eskolatze-tasa handiena lortu du, eta 20 puntuko aldea du atzetik dituen Belgikarekin eta Frantziarekin. Gainerako adin--taldeetan ere tasak ELGEko gainerako herrialdeen gainetik daude. Salbuespena 20 eta 29 urte bitarteko adintaldea da. Talde horretan, Europako erdialdeko eta iparraldeko herrialdeetan tasa handiagoak lortu dituzte, hala nola Alemanian, Herbehereetan, Belgikan, Danimarkan, Finlandian, Suedian, bai eta Grezian ere.

## 4. TAULA: ESKOLATZE-TASAK, ADIN-TALDEARI JARRAIKI. ELGEko HERRIALDEEKIKO ALDEA. 2000/01

## TABLA 4. TASAS DE ESCOLARIDAD POR GRUPOS DE EDAD. COMPARACIÓN CON PAÍSES DE LA OCDE. 2000/01

| | 0 -4 (1) | 4 - 15 | 15 - 19 | 20 - 29 |
|---|---|---|---|---|
| **Euskal AE** / C.A. deEuskadi (2002/03) | 152,0 | 102,9 | 84,2 | 23,6 |
| **Euskal AE** / C.A. de Euskadi (2000/01) | 139,7 | 101,4 | 83,5 | 23,4 |
| **Alemania** / Alemania | 70,4 | 100,1 | 89,4 | 24,2 |
| **Austria** / Austria | 62,1 | 98,7 | 76,9 | 18,6 |
| **Belgika** / Bélgica | 119,4 | 100,2 | 91,0 | 26,5 |
| **Danimarka** / Dinamarca | 84,6 | 97,2 | 82,9 | 31,5 |
| **Espainia** / España | 107,5 | 103,6 | 80,1 | 23,5 |
| **Finlandia** / Finlandia | 38,7 | 93,5 | 85,3 | 39,2 |
| **Frantzia** / Francia | 119,3 | 101,0 | 86,6 | 19,6 |
| **Grezia** / Grecia | 29,2 | 98,1 | 77,0 | 23,8 |
| **Herbehereak** / Holanda | 48,9 | 99,3 | 86,2 | 24,3 |
| **Irlanda** / Irlanda | 26,1 | 100,6 | 80,9 | 16,6 |
| **Italia** / Italia | 98,9 | 99,4 | 72,2 | 17,1 |
| **Luxenburgo** / Luxemburgo | 68,8 | 92,2 | 78,1 | 6,0 |
| **Portugal** / Portugal | 67,9 | 107,0 | 73,3 | 21,7 |
| **Erresuma Batua** / Reino Unido | 81,0 | 98,7 | 74,7 | 23,3 |
| **Suedia** / Suecia | 73,1 | 98,1 | 86,4 | 33,0 |
| **ELGE** / OCDE | 63,1 | 98,2 | 77,7 | 21,8 |
| **Ameriketako Estatu Batuak** / Estados Unidos | 47,4 | 102,1 | 77,6 | 22,6 |
| **Japonia** / Japón | 76,8 | 101,0 | – | – |

**Iturria: Eustat. Irakaskuntzaren estatistika. ELGE.** / Fuente: Eustat. Estadística de la Enseñanza. OCDE.

(1) **Lau urtetik beherako ikasleen eta soilik 3 eta 4 urte dituzten biztanleen arteko erlazioa.**
Relación entre los efectivos escolares menores de cuatro años y la población únicamente de 3 y 4 años.

Respecto al ratio número de alumnos por grupo, se ha producido un descenso en relación a los valores observados hace una década, pasando de 20,6 a 18,3 alumnos por grupo en Educación Básica y de 30,7 a 20,5 en Secundaria.

Talde bakoitzeko ikasle-kopuruaren ratioari dagokionez, duela hamar urte zeuden balioak jaitsi egin dira: Oinarrizko Irakaskuntzan, talde bakoitzean 20,6 ikasle egotetik 18,3 ikasle egotera pasa dira, eta Bigarren Mailakoan, 30,7 ikasle egotetik 20,5 ikasle egotera.

Ratio alumnos/grupo por titularidad del centro. Enseñanzas preuniversitarias. Comparación 1993/94 - 2002/03 Gráfico **10 Grafikoa** **Talde bakoitzeko ikasleen raioa, ikastetzearen titulartazunaren arabera. Unibertsitate aurreko ikasketak.1993-1994 eta 2002-2003 ikasturteen arteko aldea**




**Iturria** / Fuente: Eustat

Al observar los datos según la titularidad del centro, el ratio presentó en 2002/03 valores netamente inferiores en los Centros Públicos de la C.A. de Euskadi con relación a los Privados, de forma que durante el curso 2002/03 los centros públicos tuvieron, en Educación Básica, una media de 16,3 alumnos por grupo, frente a los 20,6 de los centros privados y, en educación secundaria, 18,4 frente a 22,7.

Ikastetxearen titulartasunaren araberako datuei begiratuz gero, 2002-2003 ikasturteko ratioan balio txikiagoak lortu ziren Euskal AEko ikastetxe publikoetan ikastetxe pribatuetan baino. Beraz, 2002-2003 ikasturtean, ikastetxe publikoek Oinarrizko Irakaskuntzan talde bakoitzeko 16,3 ikasleko batez bestekoa izan zuten. Aldiz, ikastetxe pribatuetan 0,6ko batez bestekoa izan zuten. Bigarren Hezkuntzari dagokionez, 18,4 eta 22,7 ikasle izan zituzten hurrenez hurren.

Un comportamiento análogo ha experimentado el ratio alumnos por profesor, siendo en el bloque de Enseñanza Secundaria en el que más ha disminuido durante los últimos diez años, pasando de 15,3 alumnos por profesor en 1993/94 a 9,1 en 2002/03, mientras que en Educación Básica (Infantil-Primaria) se ha pasado de 15,2 a 12,3. Por su parte, los estudios Universitarios presentaron en 2002/03 un ratio alumno-profesor de 15 frente a 18,6 de hace una década.

Irakasle bakoitzeko ikasle-kopurua adierazten duen ratioak antzeko bilakaera izan du. Bigarren Mailako Irakaskuntza izan da azken hamar urteotan gehien jaitsi dena. 1993-94 ikasturtean irakasle bakoitzeko 15,3 ikasleko ratioa izatetik, 2002-2003 ikasturtean 9,1 ikasleko ratioa izatera pasa da. Oinarrizko Irakaskuntzan (Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza), aldiz, 15,2 ikasle egotetik 12,3 ikasle egotera pasa dira. Bestalde, unibertsitateko ikasketetan, irakasle bakoitzeko 15 ikasleko ratioa lortu zen 2002-2003 ikasturtean, eta duela hamar urte 18,6 ikaslekoa.

Ratio alumnos/profesor según niveles. Todas las enseñanzas. Gráfico **11** **Grafikoa** **Irakasle bakoitzeko ikasleen ratioa, mailen arabera. Ikasketa guztiak.**




**Iturria** / Fuente: Eustat

Atendiendo a la titularidad del centro, el ratio mostró en 2002/03, al igual que el ratio alumno-grupo, valores inferiores para los centros públicos en todos los niveles de enseñanza: en educación básica el ratio tomó un valor 10,3 en los centros públicos frente a los 15 alumnos por profesor de los centros privados; en educación secundaria, 7,3 en públicos frente a 11,8 en privados, y finalmente en estudios universitarios, 14,7 frente a 16.

Ikastetxearen titulartasunari begira, eta irakasle bakoitzeko ikasle-kopuruaren ratioarekin gertatu zen bezala, 2002/03 ikasturtean balio txikiagoak lortu ziren ikastetxe publikoetan ikasketa-maila guztietan: oinarrizko hezkuntzan, ratioak 10,3ko balioa lortu zuen ikastetxe publikoetan, eta irakasle bakoitzeko 15 ikasleko ratioa izan zuten ikastetxe pribatuetan; bigarren mailako irakaskuntzan, balio horiek 7,3 eta 11,8 izan ziren hurrenez hurren; azkenik, unibertsitateko ikasketetan, balio horiek 14,7 eta 16 izan ziren hurrenez hurren.

**Modelo lingüístico**

La distribución del alumnado de los niveles de Enseñanza de Régimen General Preuniversitaria según el modelo de enseñanza bilingüe fue en 2002/03 el siguiente: un 30,5% de los estudiantes optaron por el modelo A con euskara como asignatura, el 22,4% eligieron el modelo B y el 46,5% cursaron íntegramente en euskara, a través del modelo D. Existe un 0,6% de alumnado que cursó en modelo X, es decir no estudiaron euskara.

Por niveles de enseñanza, es la Educación Infantil donde mayor es el porcentaje de estudiantes que eligen el modelo D alcanzando un 61,5% del total; el modelo B fue elegido por un 28,7% y solamente un 9,3% siguió el modelo A. En el conjunto de educación obligatoria, es decir, Primaria y E.S.O., el modelo D fue también mayoritario con el 47,8%, mientras que el modelo B se ha afianzado en los últimos años y ya es el segundo más utilizado con un 27,5%. Un 23,9% del alumnado optó por el modelo A.

**Hizkuntza-eredua**

Araubide orokorreko unibertsitate aurreko irakaskuntzaren baitan, irakaskuntza-eredu elebidunaren araberako sailkapena honako hau izan zen 2002-2003 ikasturtean: ikasleen %30,5ek A eredua hautatu zuten eta euskara ikasgaitzat izan zuten; % 22,4k B eredua hautatu zuten; eta %46,5ek ikasketak euskaraz baino ez zituzten egin, D eredua hautatuta. Ikasleen %0,6k X ereduan ikasi zuten, hots ez zuten euskararik ikasi.

Ikasketa-mailen arabera, D eredua hautatzen duten ikasleen ehuneko handiena Haur Hezkuntzaren baitan dago (ikasle guztien %61,5). Haur Hezkuntzan, %28,7k hautatu zuen B eredua, eta %9,3k baino ez A eredua. Nahitaezko hezkuntzaren baitan ere gauza bera gertatu da; hots, Lehen Hezkuntzaren eta DBHren baitan D eredua hautatu zuten ikasle gehienek. B eredua finkatu egin da azken urteotan, eta D ereduaren atzetik, bigarren geratu da, %27,5 ikaslek hautatu baitute. Ikasleen %23,9k A eredua hautatu zuen.

Enseñanzas de Régimen General Preuniversitarias. Alumnos según modelo de enseñanza bilingüe. Gráfico **12 Grafikoa** **Unibertsitate aurreko irakaskuntza, araubide orokorra. Ikasleen sailkapena, irakaskuntza-eredu elebidunaren arabera.**




**Iturria** / Fuente: Eustat

En lo que se refiere a los estudios post-obligatorios, el modelo A pasa a ser el más utilizado con un 55,8% en Bachillerato y un 81,7% en Formación Profesional. El modelo D fue elegido en estos niveles por un 41,9% de los alumnos de Bachillerato y por un 14,6% de los que cursaron Formación Profesional.

Cuando se observa la serie desde 1993/94 la variación más relevante es el trasvase de alumnos que se ha producido desde el modelo A hacia el D, de forma que la cifra de alumnos que han optado por el primero se ha reducido en un 50,5%, mientras que el modelo D se ha incrementado en un 30,6%. De todas formas, la distribución

Nahitaezkoak diren ikasketen osteko ikasketei dagokienez, gehienbat A eredua erabili da. Batxilergoan %55,8k hautatu dute eta Lanbide Heziketan %81,7k. Ikasketa-maila horietan, D eredua Batxilergoko ikasleen %41,9k hautatu zuten, eta Lanbide Heziketa egin zutenen %14,6k.

Serieari 1993-1994 ikasturtetik aurrera begiratzen badiogu, gertatu den aldaketa garrantzitsuena A eredutik D eredura pasa diren ikasleena izan da. Izan ere, A eredua hautatu zuten ikasleen kopurua %50,5 murriztu zen. Aldiz, D eredua hautatu zutenena %30,6 igo zen. Nolanahi ere, ereduen araberako ikasleen sailkapena

del alumnado por modelos difiere en función del nivel de enseñanza observado, así, son la Educación Infantil-Primaria y la Educación Secundaria Obligatoria las que han mostrado mayores porcentajes de estudiantes en el Modelo D durante la última década, mientras que en Formación Profesional su implantación es menor.

ezberdina da ikasketa-mailaren arabera. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako nahiz Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleek lortu dituzte D ereduko ikasleen ehuneko handienak azken hamarkadan. Aldiz, Lanbide Heziketan ikasle gutxiagok hautatu dute D eredua.

**Elección de estudios**

Una vez superada la educación obligatoria, el alumnado se distribuye, según la elección de estudios realizada, de la siguiente forma: un 53,6% de los alumnos optaron en 2002/03 por la línea de bachillerato frente a un 46,4% que optó por la Formación Profesional.

Este dato muestra, como en años precedentes, la preferencia de los alumnos de la C.A. de Euskadi por los estudios enfocados al ingreso en la Universidad, si bien a lo largo de la última década el porcentaje de estudiantes que han elegido la Formación Profesional se ha ido incrementado de forma paulatina, pasando de representar el 37,7% en el curso 1993/94 al 46,4% referido anteriormente. La línea de bachillerato por el contrario ha pasado del 62,3% en 1993/94 al 53,6% actual.

Dentro de la línea de bachillerato, las modalidades más demandadas son la de Ciencias de la Naturaleza y de la Salud con un 41,7% y la de Humanidades y Ciencias Sociales con un 36,8%; el 18,9% optó por el bachillerato Tecnológico y únicamente el 2,6% por el de Artes.

En lo que a Ciclos de Formación Profesional se refiere, los módulos más demandados en 2002/03 fueron en F.P. de grado medio: Metal/Fabricación Mecánica (21,7%), Electricidad/Electrónica (13,8%), Administración (11,8%)

**Ikasketak hautatzea**

Nahitaezko hezkuntza gainditu eta gero, ikasleak hautatutako ikasketen arabera sakabanatzen dira. Hona hemen sailkapen hori: 2002-2003 ikasturtean, ikasleen %53,6k Batxilergoa hautatu zuten, eta ikasleen %46,4k Lanbide Heziketa.

Datu horrek erakusten duenez, eta aurreko urteetan gertatu denez, Euskal AEko ikasleek nahiago dituzte unibertsitatera bideratutako ikasketak. Nolanahi ere, azken hamarkadan Lanbide Heziketa hautatu dutenen ehunekoak gora egin du pixkanaka. Izan ere, 1993-1994 ikasturtean ehuneko hori %37,7 izatetik lehen adierazi dugun %46,4 izatera pasa da. Aitzitik, batxilergoari dagokionez, aurkako joera izan du. 1993-1994 ikasturtean %62,3 ikaslek hautatu zuten eta egun %53,6k.

Batxilergoaren ildotik, ikasleek batez ere Natur eta Osasun Zientzien batxilergoa eskatzen dute (%41,7). Horren atzetik Giza eta Gizarte Zientzien batxilergoa dugu (%36,8). Azkenik, Teknologiako batxilergoa (%18,9) eta Artekoa (%2,6) hautatu dituzte.

Lanbide Heziketako zikloei dagokienez, 2002-2003 ikasturtean Erdi-mailako Lanbide Heziketan gehien eskatu zituzten moduluak honakoak izan ziren: Metala eta Fabrikazio Mekanikoa (%21,7), Elektrizitatea eta

Las 10 carreras universitarias más demandadas. 2002/2003 Gráfico **13 Grafikoa** **Gehien hautatutako unibertsitateko ikasketak. 2002/2003**




**Iturria** / Fuente: Eustat

y Sanitario/Salud (9,2%), y dentro de la F.P. de grado superior: Informática (18,3%), Metal/Fabricación Mecánica (13,4%), Electricidad/Electrónica (13,3%) y Administración (12%).

En cuanto a la elección de estudios en el nivel Universitario, fue la Licenciatura en Administración y Dirección de Empresas la que, por tercer año consecutivo, registró un mayor número de alumnos (6.601); si a ellos se añaden los 4.484 que cursaron la Diplomatura de Ciencias Empresariales, se obtiene que un 14,9% de los alumnos universitarios de la C.A. de Euskadi optaron por este tipo de estudios.

Otros estudios muy demandados fueron, dentro de las titulaciones de dos ciclos, Ingeniería Industrial con 3.748 alumnos, Psicología (2.862), Ingeniería Informática (1.960) y Licenciatura en Economía (1.782) y, dentro de las carreras de primer ciclo, la Diplomatura de Ciencias Empresariales ya comentada, seguida por las Ingenierías Técnicas, como la Industrial rama Mecánica (3.030), o rama Electrónica (2.747), la Informática de Gestión (2.107), y las carreras relacionadas con enseñanza como Maestro de Educación Infantil (1.839), de Educación Primaria (1.330) y la Diplomatura en Educación Social (1.440).

Elektronika (%13,8), Administrazioa (%11,8) eta Osasungintza eta Osasuna (%9,2). Goi-mailako Lanbide Heziketan honakoak hautatu zituzten batik bat: Informatika (%18,3), Metala eta Fabrikazio Mekanikoa (%13,4), Elektrizitatea eta Elektronika (%13,3) eta Administrazioa (%12).

Unibertsitate-mailan hautatutako ikasketei dagokienez, jada hiru urtez Enpresa Zuzendaritza eta Administrazioa lizentziatura izan zen gehien hautatutakoa (6.601 ikasle). Kopuru horri Enpresa Zientzietako diplomatura egin zuten 4.484 ikasle gehitzen badizkiogu, azkenean Euskal AEko %14,9 ikaslek ikasketa horiek hautatu zituztela ondorioztatu dugu.

Ikasketa horiez gain, eta bi zikloko titulazioen baitan, honakoak ere ikasle ugarik eskatu zituzten: Industria Ingeniaritza (3.748 ikasle), Psikologia (2.862 ikasle), Informatika Ingeniaritza (1.960 ikasle) eta Ekonomia (1.782 ikasle). Lehen zikloko ikasketen baitan, lehen esan dugun Enpresa Zientzien diplomatura dago lehenik. Horren atzetik honakoak daude: Ingeniaritza Teknikoak, hain zuzen ere Industria Ingeniaritza Mekanikoa (3.030) nahiz Elektronikoa (2.747), Kudeaketa Informatika (2.107), edota irakaskuntzarekin lotura duten ikasketak, hots, Haur Hezkuntzako irakaskuntza (1.839), Lehen Hezkuntzako irakaskuntza (1.330) eta Gizarte Hezkuntzako diplomatura (1.440).

Evolución de las carreras de 2 ciclos más demandadas en 2002/2003 Gráfico **14** **Grafikoa** **2002-2003 ikasturtean gehien hautatutako 2 zikloko ikasketen bilakaera**




**Iturria** / Fuente: Eustat

Durante la última década se produce una evolución dispar de las titulaciones universitarias más demandadas por los estudiantes de la C.A. de Euskadi, observándose un trasvase desde algunas carreras de dos ciclos hacia otras, de nueva creación, de un solo ciclo.

Azken hamarkadan, Euskal AEko ikasleek gehien hautatzen dituzten unibertsitateko ikasketek oso bilakaera ezberdina izan dute. Bi zikloko ikasketa batzuetatik ziklo bakarreko beste ikasketa sortu berri batzuetarako joera egon da.

Evolución de las carreras de 1 ciclo más demandadas en 2002/2003 — Gráfico **15** **Grafikoa** — **2002-2003 ikasturtean gehien hautatutako ziklo bakarreko ikasketen bilakaera**




**Iturria** / Fuente: Eustat

Así, dentro de las titulaciones de dos ciclos, aunque las más demandadas siguen siendo las mismas de hace 10 años, se ha apreciado un retroceso en las cifras globales de alumnos, siendo esto patente especialmente en el caso de la Licenciatura de Derecho, con una pérdida de más de 5.000 alumnos (-51,8%) desde 1994. Con todo, esta carrera sigue siendo la segunda más demandada. Otras que han experimentado retroceso son Ingeniería Informática con 2.040 alumnos menos (-51%), Ingeniería Industrial (-22%), Licenciatura en Química (-27%) o la Licenciatura en Economía (-20,4%).

Sin embargo, dentro de las titulaciones de un sólo ciclo ha habido importantes variaciones debido a que en los últimos años han ido surgiendo nuevas carreras, principalmente Ingenierías Técnicas, creadas para paliar una demanda de títulos con mayor salida hacia el mercado de trabajo. Así, las carreras de mayor crecimiento durante el último quinquenio son: Ingeniería Técnica Mecánica (+46%), Ingeniería Técnica de Informática de Gestión (+40,7%) o Ingeniería Técnica Electrónica Industrial (+21%).

En cuanto a la distribución del alumnado por sexo, cabe destacar que, al igual que lo sucedido durante los últimos diez años, el porcentaje de mujeres (54,8%) que cursaron estudios universitarios en el curso 2002/03 supera al

Bi zikloko titulazioen taldean, nahiz eta gehien eskatzen dituztenak duela 10 urte eskatzen zituzten berak diren, bada atzerakada bat ikasle-kopuru orokorrean. Atzerakada hori batez ere Zuzenbideko ikasketetan nabaritu da. Izan ere, 1994az geroztik, 5.000 ikasletik gora galdu dira (%-51,8). Nolanahi ere, karrera hori gehien eskatzen den bigarrena da. Atzerakada izan duten beste ikasketa batzuk honakoak dira: Informatika, 2.040 ikasle gutxiago (%-51); Industria Ingeniaritza (%-22), Kimikako lizentziatura (%-27) edota Ekonomiako lizentziatura (%-20,4).

Hala ere, ziklo bakarreko ikasketetan, aldaketa garrantzitsuak izan dira, beste karrera batzuk sortzearen ondorioz. Lan-merkatuan aukera gehiago eskaintzen dituzten beste ingeniaritza tekniko batzuk sortu dira gehienbat. Azken bosturtekoan gehien hazi diren karrerak hauek dira: Ingeniaritza Tekniko Mekanikoa (%+46), Kudeaketa Informatikako Ingeniaritza Teknikoa (%+40,7) edo Elektronikako Industria Ingeniaritza Teknikoa (%+21).

Sexuaren araberako ikasleen sailkapenari dagokionez, eta azken hamar urteotan gertatu denez, 2002-2003 ikasturtean emakumezko gehiagok egin zituzten unibertsitateko ikasketak. Horrela, bada, unibertsitateko ikasleen

de los hombres (45,2%). Las carreras más demandadas por las mujeres fueron: Licenciatura en Administración y Dirección de Empresas, Derecho, Diplomatura en Ciencias Empresariales, Psicología, Maestro de Educación Infantil, Educación Social y Bellas Artes.

Cabe resaltar además que existen algunas carreras donde el porcentaje de mujeres sobre el total de alumnos sobrepasó ampliamente la media general del 54,8%. Así, carreras como Nutrición Humana y Dietética o Educación Especial y Educación Infantil presentan porcentajes por encima del 90%. Otras carreras con alto porcentaje de alumnado femenino son Trabajo Social (88,7%), Enfermería (88,5%), Psicopedagogía (84,6%) y Farmacia (84%). Frente a estas, las carreras donde el porcentaje de mujeres es menor son fundamentalmente las Ingenierías Técnicas, en las cuales en algunos casos no se alcanza el 20%: Ingeniería Técnica de Explotación de Minas (18,9%), de Informática de Sistemas (18%), Mecánica (16,9%), de Mineralurgia y Metalurgia (16,7%) y de Electricidad (12,8%).

%54,8 emakumezkoak izan ziren, eta %45,2 gizonezkoak. Emakumeek gehien hautatu zituzten ikasketak hauek izan ziren: Enpresa Zuzendaritza eta Administrazioa, Zuzenbidea, Enpresa Zientzien diplomatura, Psikologia, Haur Hezkuntzako irakaslea, Gizarte Hezkuntza eta Arte Ederrak.

Gainera, ikasketa batzuetan, emakumeen ehunekoa gizonezkoena baino askoz ere handiagoa izan da, hots, %54,8ko batez bestekoa gainditu da. Esate baterako, Giza Nutrizioa eta Dietetika edota Hezkuntza Berezia eta Haur Hezkuntza karreretan, emakumezkoen zenbatekoa %90ekoa izan da. Emakume askok hautatzen dituzten beste karrera batzuk hauek dira: Gizarte Langintza (%88,7), Erizaintza (%88,5), Psikopedagogia (%84,6) eta Farmazia (%84). Ikasketa horiei kontrajarririk, emakumezkoen ehuneko txikiena dituzten karrerak batez ere ingeniaritza teknikoak dira. Karrera horietan, emakumeen ehunekoa ez da %20koa izatera iristen. Hona hemen karrera horietako batzuk: Meategi Ustiapeneko Ingeniaritza Teknikoa (%18,9), Sistemen Informatikako Ingeniaritza Teknikoa (%18), Ingeniaritza Mekanikoa (%16), Mineralurgiako eta Metalurgiako Ingeniaritza Teknikoa (%16,7) eta Elektrizitateko Ingeniaritza (%12,8).

**Resultados escolares**

En el curso 2002/03, en la enseñanza básica y dentro de la Educación Primaria, promocionaron totalmente, en su último ciclo (6º de Primaria), un total de 16.169 alumnos, es decir, el 95%. Este porcentaje se eleva a 96,1% entre las mujeres y a un 94,1% entre los hombres.

En la enseñanza media, obtuvieron el título de Graduado en Educación Secundaria (E.S.O.) un total de 11.531 alumnos lo que supone un 59,2% sobre el total de alumnos que cursaron 4º curso de E.S.O.. Este porcentaje sube a un 64,2% para las mujeres y baja al 54,1% para los hombres. En Bachillerato el porcentaje de aprobados asciende al 73% con 13.584 alumnos, siendo 75,8% en mujeres y 70% en hombres. Por último, en Formación Profesional de grado medio, finalizaron ciclo un total de 3.612 alumnos (78,8%), siendo un 89,7% para las mujeres y 73% para hombres, y en el grado superior se computaron 6.918 alumnos que finalizaron el ciclo superior, es decir, un 85% (89,8% en mujeres y 81,7% en hombres).

La nota media de Bachiller acreditada por los alumnos de la C.A. de Euskadi fue de 7,17, con una puntuación ligeramente superior en las mujeres, 7,27 y en los alumnos que cursaron el bachiller por el modelo D, con 7,28. En relación a las distintas modalidades de bachillerato existentes, las notas medias acreditadas más altas corresponden a los bachilleres técnicos con 7,31, de salud con 7,30 y de humanidades con 6,96.

La prueba de acceso a la universidad 2002/03 ofrece los siguientes resultados: realizaron las pruebas un total de 11.354 estudiantes, de los que un 55,8% eran mujeres. Con esta cifra la Universidad del País Vasco es la tercera del Estado en cuanto a matriculación en las pruebas

**Eskola-emaitzak**

2002-2003 ikasturtean, oinarrizko irakaskuntzan eta Lehen Hezkuntzaren barruan, 16.169 ikasle igaro zuten azken zikloa (Lehen Hezkuntzako 6. ikasmaila) %95ek, alegia. Ehuneko hori %96,1 da emakumezkoen artean, eta %94,1 gizonezkoen artean.

Bigarren mailako irakaskuntzan, 11.531 ikaslek lortu zuten Bigarren Hezkuntzako Graduatu-titulua (DBH); hau da, DBHko 4. ikasmaila egin zuten ikasle guztien %59,2k. Emakumezkoen artean, ehuneko hori %64,2 izan zen, eta txikiagoa gizonezkoen artean, %54,1. Batxilergoa gainditu zutenen ehunekoa %73 da (13.584 ikasle). Emakumezkoetan, %75,8k gainditu zuten, eta gizonezkoetan %70ek. Azkenik, erdi-mailako Lanbide Heziketan, 3.612 ikaslek (%78,8) bukatu zuten zikloa. Emakumezkoei dagokionez, %89,7 izan zen ehunekoa, eta gizonezkoen kasuan, %73. Goi-mailako Lanbide Heziketan, bestalde, 6.918 ikaslek bukatu zuten goi-ziklo hori, %85ek, alegia (%89,8 emakumezkoetan, eta %81,7 gizonezkoetan).

Euskal AEko ikasleen batez besteko nota Batxilergoan 7,17 izan zen. Emakumezkoen artean puntuazioa apur bat handiagoa izan zen (7,27), bai eta Batxilergoa D ereduan egin zuten ikasleen artean ere (7,28). Batxilergoko modalitateak kontuan izanik, batez besteko nota altuenak batxilergo teknikoetan (7,31), Natur eta Osasun Zientzien batxilergoan (7,30), eta Giza eta Gizarte Zientzien batxilergoan (6,96) izan ziren.

2002-2003 ikasturteko unibertsitaterako sarbide-proban honako emaitza hauek lortu ziren: guztira, 11.354 ikaslek egin zituzten probak, eta haietarik % 55,8 emakumezkoak ziren. Kopuru horrekin, Euskal Herriko Unibertsitateak hirugarren postua du estatu osoan, sarbide-probetako

de acceso, según datos del Instituto Nacional de Estadística (INE), detrás de la Universidad Complutense de Madrid y la Universidad de Santiago de Compostela.

matrikulazioari dagokionez, Espainiako Estatistika Erakundeak (INE) emandako datuen arabera. Aurretik, Madrileko Complutense Unibertsitatea eta Santiagoko Unibertsitatea daude.

**5. TAULA: UNIBERTSITATEKO SARBIDE-PROBA GAINDITU DUEN BIZTANLE-TASA GORDINA, AUTONOMIA-ERKIDEGOKA, 2000-2001**

TABLA 5. TASA BRUTA DE POBLACIÓN QUE SUPERA LA PRUEBA DE ACCESO A LA UNIVERSIDAD, POR CC.AA.. 2000/01

| | **Guztira** Total | **Gizonak** Hombres | **Emakumeak** Mujeres |
|---|---|---|---|
| **Euskal AE (2002/03)** / C.A. de Euskadi (2002/03) (*) | 42,8 | 35,8 | 50,3 |
| **Euskal AE (2000/01) /** C.A. de Euskadi (2000/01) (*) | 47,7 | 37,3 | 58,6 |
| **Estatua, guztira** / Total Estado | 36,9 | 29,5 | 44,4 |
| **Andaluzia** / Andalucia (1) | 31,7 | 26,3 | 37,4 |
| **Aragoi** / Aragón | 41,9 | 32,9 | 51,4 |
| **Asturiasko Printzerria** / Asturias (Principado de) | 42,1 | 34,3 | 50,1 |
| **Balear Uharteak** / Balears (Illes) | 29,1 | 22,4 | 36,1 |
| **Kanariak** / Canarias (Islas) | 33,6 | 25,5 | 42,0 |
| **Kantabria** / Cantabria | 34,6 | 27,7 | 42,0 |
| **Gaztela eta Leon** / Castilla y León | 41,0 | 31,9 | 50,6 |
| **Gaztela-Mantxa** / Castilla - La Mancha | 37,5 | 29,1 | 46,5 |
| **Katalunia** / Cataluña | 33,9 | 26,8 | 41,5 |
| **Valentziako Erkidegoa** / Comunidad Valenciana | 33,2 | 26,2 | 40,7 |
| **Extremadura** / Extremadura | 34,2 | 28,7 | 40,0 |
| **Galizia** / Galicia | 33,5 | 26,1 | 41,2 |
| **Errioxa** / La Rioja | 41,6 | 29,6 | 54,5 |
| **Madrilgo Autonomia Erkidegoa** / Madrid (Comunidad de) (2) | 43,1 | 36,3 | 50,2 |
| **Murtziako Eskualdea** / Murcia (Región de) | 33,1 | 26,2 | 40,4 |
| **Nafarroako Foru Erkidegoa** / Navarra (Comunidad Foral de) | 43,9 | 30,8 | 57,9 |

**(*) Iturria /** Fuente: Eustat
**Iturria /** Fuente: INE (2000/2001)

(1) **Andaluziaren adierazleak Ceuta eta Melilla hiri autonomoak ere hartzen ditu barruan, hango ikasleek Andaluziako unibertsitateetan egiten baitituzte probak.**
El indicador de Andalucía engloba también las ciudades autónomas de Ceuta y Melilla, al realizar sus alumnos las pruebas en universidades andaluzas.

(2) **Madrileko Autonomia Erkidegoaren adierazleak Guadalajara probintzia ere hartzen ditu barruan, hango ikasleek Madrileko unibertsitate batean egiten baitituzte probak.**
El indicador de la Comunidad Autónoma de Madrid engloba la provincia de Guadalajara, al realizar sus alumnos las pruebas en una universidad madrileña.

El porcentaje de aprobados fue del 92,6%, siendo del 93,9% en mujeres y del 91% en hombres. Además, la C.A. de Euskadi ostentó en 2002/03 una tasa bruta de población que supera la prueba de selectividad del 42,8%, siendo la más alta dentro de las Comunidades Autónomas españolas (datos correspondientes al curso 2000/01).

En el curso académico 2002/03, y en el total de centros universitarios de la C.A. de Euskadi obtuvieron títulos de licenciado, ingeniero o arquitecto, diplomado o ingeniero técnico un total de 20.251 alumnos, siendo 11.868 de ellos mujeres. Las carreras con mayor número de egresados o aprobados fueron: Licenciatura en Administración y Dirección de Empresas (1.923), Licenciatura en Derecho (1.601), Diplomatura en Ciencias Empresariales (1.140), Ingeniería Industrial (1.085), Ingeniería Técnica Industrial Especialidad Mecánica (766), Ingeniería Informática (763), Licenciatura en Psicología (656), Ingeniería Técnica Industrial Especialidad Electrónica

Probak gainditu zituztenen ehunekoa %92,6 izan zen (emakumezkoetan %93,9 izan zen, eta gizonezkoetan, %91). Gainera, Euskal AEn, 2002-2003 ikasturtean, selektibitate-azterketa gainditu zutenen biztanle-tasa gordina %42,8 izan zen, tasarik altuena Espainiako autonomia-erkidego guztien artean (2000-20001 ikasturteari dagozkion datuak).

2002-2003 ikasturtean, Euskal AEko unibertsitate-ikastegi guztiak kontuan izanik, guztira 20.251 ikaslek lortu zuten lizentziatura, ingeniari- edo arkitekto-titulua, diplomatura edo ingeniaritza teknikoko titulua; haietarik, 11.898 emakumezkoak ziren. Ikasketak bukatu edo gainditu zituztenen kopuru handienei begiratuta, honako hauek aipatu behar dira: Enpresa Zuzendaritza eta Administrazioan lizentziaduna (1.923); Zuzenbidean lizentziaduna (1.601); Enpresa Zientzietan diplomaduna (1.140); Industria Ingeniaritza (1.085); Industria Ingeniaritza Teknikoa. Mekanikako Espezialitatea (766); Informatika Ingeniaritza (763); Psikologian lizentziaduna

(588), Maestro de Educación Infantil (507) y Licenciatura en Economía (503).

La edad media de finalización de los estudios universitarios se situó en 2002/03 en 23,6 años de edad, siendo algo menor en el caso de las mujeres (23,3) y superior para los varones (24 años).

(656); Industria Ingeniaritza Teknikoa. Elektronikako Espezialitatea (588); Haur Hezkuntzako irakaslea (507), eta Ekonomian lizentziaduna (503).

Unibertsitate-ikasketak bukatu zituztenen batez besteko adina 23,6 urtekoa izan zen 2002-2003 ikasturtean. Emakumezkoen kasuan, apur bat txikiagoa da (23,3) da, eta apur bat altuagoa gizonezkoen artean (24 urte).

Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eustat
EUSKAL ESTATISTIKA ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE ESTADÍSTICA

www.eustat.es